# Euskal lankidetza zenbakitan 2022

EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN ATARIA
PORTAL DE LA COOPERACIÓN PÚBLICA VASCA

Ekintzaren laguntzailea:

# Datu orokorrak 2022

**69 herrialdetan**
ekimenak garatu dira

**228**
erakunde bideratzaile
(gehienak Euskadikoak)

**335**
tokiko erakunde bazkide
inplikatuta

**1.189**
proiektu aktibo

horietatik
**606**
2022ean hasi ziren

**81.305.847 €**
ordaindutako funtsak

# Ordaindutako funtsak, eragileen arabera 2022

| Eragilea | Funtsak (€) | Ehunekoa (%) |
|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 57.289.946 | 70,46 |
| Bizkaiko Foru Aldundia | 9.414.323 | 11,58 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 4.788.338 | 5,89 |
| Bilboko Udala | 3.441.332 | 4,23 |
| Gasteizko Udala | 3.189.393 | 3,92 |
| Donostiako Udala | 1.884.450 | 2,32 |
| Arabako Foru Aldundia | 1.298.065 | 1,60 |
| **Guztira** | **81.305.847** | **100,00** |




2022 ekitaldian, EAEko erakunde publikoek 81.305.847 €[1] ordaindu zituzten garapenerako lankidetza-ekimenetarako, beraz, 2021.urtean baino % 9,35 gehiago.

Eusko Jaurlaritzak egin ditu ekarpen handienak, eta 2022ean % 70,46ko partaidetza izan zuen, batik bat, eLankidetza-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez.

[1] Zenbateko horrek taulan azaltzen diren zazpi erakundeen ekarpenak barneratzen ditu. Gainera, Euskal Fondoaren bitartez guztira bideratu ziren 2.568.088 eurotik (ikus hurrengo orrialdea) % 42,97 beste udal batzuen (1.103.412 €) eta Arabako eta Bizkaiko Batzar Nagusien (87.672 €) ekarpenak dira. Horiez gain, lankidetza-partidak zuzenean kudeatzen dituzten beste udalerri batzuk daude, eta horien datuak erregistratu gabe daude atarian.

# Euskal Fondoak bideratutako funtsak 2022

## Erakunde finantzatzaileak




2022. urtean, Euskal Fondoak hartutako funtsak, batez ere, Uraren hornidurarekin eta saneamenduarekin zerikusia zuten proiektuetara (1.286.746 €; % 50,11) eta Gobernu eta gizarte zibilaren ekimenetara (543.690 €; % 21,17) edo Azpiegitura eta zerbitzu ekonomikoetara (335.105 €; % 13,05) bideratu ziren.

## Helmugako herrialdeak

| Herrialdea | Funtsak (€) | Ehunekoa (%) |
|---|---|---|
| El Salvador eta Costa Rica[2] | 574.755 | 22,38 |
| Guatemala | 462.299 | 18,00 |
| Nikaragua | 389.999 | 15,19 |
| El Salvador | 338.038 | 13,16 |
| Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) | 292.273 | 11,38 |
| Euskadi | 235.852 | 9,18 |
| Kuba | 215.054 | 8,37 |
| Hainbat herrialde | 49.819 | 1,94 |
| Senegal | 10.000 | 0,39 |
| **Guztira** | **2.568.088** | **100,00** |

[2] Funts horiek AKUAL, ur eta saneamendu arloko Euskadi - Ertamerikako erakundeen arteko lankidetza-programari dagozkio (2021-2024).

# Bideratutako funtsak, modalitatearen arabera 2022




2022ean, ordaindutako funtsen % 60,27 Garapenerako lankidetzaren modalitatera bideratu zen, eta funtsen % 21,03 Ekintza humanitariora eta larrialdikora.

Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren modalitatea berezkoa da lankidetza deszentralizatuan, eta funtsen % 10,84 bideratu zen horretara. Bertan sartzen dira, besteak beste, hezkuntzaren, komunikazioaren, kulturaren eta ikerketaren arloetako prozesuak eta ekintzak, desberdinkeriez jakitun diren herritar kritikoak sustatzeko eta jardunbide zuzen eta solidarioak bultzatzeko. Helburua da taldean eta banaka egitea aldaketa.

# Gizarte eraldaketarako hezkuntzan erabilitako funtsak 2022

## Esku-hartzearen estrategia




Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren modalitatean erabili diren baliabideetatik (8.814.572 €), % 70,62 Prestakuntza- eta Sentsibilizazio-estrategietara bideratu ziren. Bestalde, Hezkuntza informala izan zen funtsen ia erdia jaso zuen jarduera-esparrua (% 46,72).

## Jarduera-esparrua



# Ordaindutako funtsak, eremu geografikoaren arabera 2022




2022an, Garapeneko lankidetza eta Ekintza humanitarioa eta larrialdikoa modalitateetan erabilitako funtsetatik (66.099.232 €), Amerikak (Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika, Karibe eta Hego Amerika) jaso zuen bolumen handiena (% 53,65), bere jarraian Saharaz Hegoaldeko Afrika zegoelarik (% 22,63).

[3] Europak, nagusiki, Euskadin, Ukrainan eta Grezian errefuxiatuentzako proiektuak eta giza eskubideak babesteko proiektuak ditu.

# Ordaindutako funtsak, herrialdearen arabera 2022

Garapenerako lankidetza eta Ekintza humanitarioa eta larrialdikoa modalitateetan erabilitako funtsetatik (66.099.232 €), hurrengo 15 herrialdeek funts gehien jaso zutenak izan ziren, guztizkoaren % 72,08.




1. Guatemala, 6.285.491 €; **% 9,51**
2. Euskadi[4], 5.861.274 €; **% 8,87**
3. Kolonbia, 5.549.648 €; **% 8,40**
4. El Salvador, 5.023.194 €; **% 7,60**
5. Peru, 4.957.812 €; **% 7,50**
6. Bolivia, 2.663.674 €; **% 4,03**
7. Senegal, 2.657.515 €; **% 4,02**
8. Mexiko, 2.219.101 €; **% 3,36**
9. Honduras, 2.097.762 €; **% 3,17**
10. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD), 2.026.238 €; **% 3,07**
11. Palestina, 1.839.726 €; **% 2,78**
12. Kuba, 1.722.638 €; **% 2,61**
13. Ekuador, 1.595.622 €; **% 2,41**
14. Libano, 1.595.490 €; **% 2,41**
15. Kongoko Errepublika Demokratikoa, 1.551.068 €; **% 2,35**

[4] Aurten, Euskadin ordaindutako funtsak handitu egin dira, batez ere Eusko Jaurlaritzak finantzatutako Ukrainako errefuxiatuei laguntzeko proiektuen ondorioz. 5.861.274 euroetatik, funtsen % 90,57 aldi baterako babes-estatutua duten laguntza ekonomikoen programetara, harrerako tokiko sareetara eta Ukrainako pertsonei eta familiei laguntza psikosoziala ematera bideratu dira.

# Ordaindutako funtsak, sektorearen arabera 2022




Garapenerako lankidetza eta Ekintza humanitarioa eta larrialdikoa modalitateetara bideratutako funtsetatik (66.099.232 €), % 71,87 GLBren[5] 3 sektoretan banatzen da: Gobernua eta gizarte zibila, Laguntza humanitarioa eta Errefuxiatuei laguntza herrialde emaileetan.

[5] GLBren sektoreak jarduketa-sektoreen sailkapen bat dira, eta Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) normalizatu du.

[6] Nabarmentzekoa da Hainbat sektore deituriko atalean sartutako funtsen % 30,80 Ingurumenaren babes orokorrari dagozkiola (1.124.428 €).

[7] Gobernu eta gizarte zibila sektorearen barruan azpisektore nagusiak honako hauek dira:

- Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea (10.403.857 €).
- Giza eskubideak (9.135.715 €).
- Emakumeenganako eta neskenganako indarkeriaren aurkako borroka (7.892.856 €).

# 2022. urtean GJHetarako emandako funtsak







Grafikoan, erakundeek Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) kontuan hartuta 2022an[8] hasitako proiektuetan ordaindutako funtsak ageri dira.

2030 Agendaren barruan 2022an hasitako proiektu guztietarako emandako diru kopurutik (49.611.571 €) funts gehien Genero berdintasuna-5. GJHak jaso du (% 20,55), eta, horren ondoren, Desberdintasunak murriztea-10. GJHak (%16,08) eta Bakea, justizia eta erakunde sendoak-16. GJHak (%15,88).

[8] Proiektu bakoitzerako GJH bat –adierazgarriena– zehaztu da.

# Ordaindutako funtsak, erakunde bideratzaile motaren arabera 2022




Garapenerako lankidetza, Ekintza humanitarioa eta larrialdikoa eta Gizarte eraldaketarako hezkuntza modalitateetan ordaindutako funtsak (74.913.804 €) Euskadiko GGKE-ek bideratu zituzten nagusiki (% 78,82).

[9] Zenbait erakunde, besteak beste, honako hauek: Nazio Batuak, garapenerako lankidetza publiko-pribatua (GLPP), sareak eta herrialde emaileko sektore pribatuko erakundeak.

# Ordaindutako funtsak, erakunde bideratzailearen arabera 2022

Hurrengo taulan, Garapenerako lankidetza, Ekintza humanitarioa eta larrialdikoa, eta Gizarte eraldaketarako hezkuntza modalitateetara funts gehien bideratu dituzten 15 erakundeak jaso dira; guztira, 74.913.804 € bideratu dituzte.

| Erakunde bideratzaileak | Bideratutako funtsak (€) | Ehunekoa (%) |
|---|---|---|
| Alboan Fundazioa | 3.633.319 | 4,85 |
| Gasteizko Elizbarrutiko Caritas | 3.011.007 | 4,02 |
| UNICEF Fundazioa Espaniako Batzordea | 3.003.750 | 4,01 |
| Fundación Mundubat - Mundubat Fundazioa | 2.968.371 | 3,96 |
| Mugarik Gabe | 2.663.536 | 3,56 |
| Farmacéuticos Mundi (Farmamundi) | 2.416.013 | 3,23 |
| Bakerako Lankidetza Batzarrea | 2.278.773 | 3,04 |
| Euskadi Bakearen eta Elkartasun Fundazioa | 2.187.184 | 2,92 |
| KCD, Kultura, Communication y Desarrollo | 2.086.339 | 2,78 |
| Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional | 2.042.636 | 2,73 |
| Medicus Mundi Gipuzkoa | 1.926.168 | 2,57 |
| UNRWA Elkartea Espainiako Batzordea | 1.918.115 | 2,56 |
| Zehar - Errefuxiatuekin | 1.914.443 | 2,56 |
| Proclade Yanapay Fundazioa | 1.799.768 | 2,40 |
| Bizilur – Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Elkartea | 1.669.070 | 2,23 |
| **Erakunde bideratzaile nagusiak, guztira** | **35.518.491** | **47,41** |

# Ordaindutako funtsak, tokiko bazkide motaren arabera 2022

Garapenerako lankidetza eta Ekintza humanitarioa eta larrialdikoa modalitateetan ordaindutako funtsetatik (66.099.232 €) % 72,01 herrialde bazkideko tokiko GKE-ekin lankidetzan gauzatzen da, eta tokiko erakunde publikoa da hurrengo tokiko bazkide motarik ohikoena (% 9,14).

«Beste batzuk» kategorian, tokiko bazkiderik ez duten modalitate horietako proiektuak biltzen dira, eta zuzenean erakunde bideratzaileak gauzatzen ditu.





# Ordaindutako funtsak, tokiko erakunde bazkideen arabera 2022

Hurrengo taulan tokiko 15 erakunde bazkide nagusiak azaltzen dira, 2022ean Garapenerako lankidetza eta Ekintza humanitarioa eta larrialdikoa modalitateetan, banaka edo elkartuta, parte hartu duten proiektuetan erabili diren funtsen arabera (guztira 66.099.232 €).

| Tokiko erakunde bazkideak | Herrialdea | Funtsak (€) | Ehunekoa (%) |
|---|---|---|---|
| Media Luna Roja Saharaui | Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) | 1.336.863 | 2,02 |
| Oficina del Historiador de la Ciudad de La Habana (OHCH) | Kuba | 1.306.142 | 1,98 |
| Centro de Investigación y Promoción Popular (CENDIPP) | Peru | 1.229.277 | 1,86 |
| Fundación Yapawayra | Kolonbia | 1.025.594 | 1,55 |
| Programme de Promotion des Soins de Santé Primaires | Kongoko Errepublika Demokratikoa | 1.000.000 | 1,51 |
| Ekialde Hurbilean dauden Palestinako Errefuxiatuentzako NBEren Agentzia (UNRWA) | Palestina | 998.538 | 1,51 |
| Centro de la Mujer Peruana Flora Tristán | Peru | 997.077 | 1,51 |
| Movimiento Manuela Ramos | Peru | 785.216 | 1,19 |
| Asociación Organización de Mujeres Salvadoreñas por la Paz (ORMUSA) | El Salvador | 688.537 | 1,04 |
| Asociación Colectiva de Mujeres para el Desarrollo Local (Colectiva Feminista) | El Salvador | 677.315 | 1,02 |
| Palestinian Agricultural Relief Committees (PARC) | Palestina | 648.703 | 0,98 |
| Asociación de Servicios Comunitarios de Salud (ASECSA) | Guatemala | 622.128 | 0,94 |
| Asociación Movimiento Salvadoreño de Mujeres (MSM) | El Salvador | 617.971 | 0,93 |
| Comité Régional de Solidarité des Femmes pour la Paix en Casamance (CRSFPC/USOFORAL) | Senegal | 571.327 | 0,86 |
| Fundación Maquita Cushunchic Comercializando como Hermanos (MCCH) | Ekuador | 567.850 | 0,86 |
| **Tokikoa bazkide nagusiak, guztira** | | **13.072.539** | **19,78** |

Euskal Lankidetza Publikoaren Ataria garapenerako lankidetzaren arloan gardentasuna, harmonizazioa eta koordinazioa sustatu nahi dituen erakunde arteko ekimen bat da. Tresna hau 2014az geroztik aritu da informazio baliagarria eskaintzen.

Hauek dira Euskal Lankidetza Publikoren Atariaren sustatzaileak: Eusko Jaurlaritza / eLankidetza-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak; Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalak eta Euskal Fondoa-Lankidetzarako Euskal Toki Erakundeen Elkartea. Hasieratik jaso du Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hegoa Institutuaren laguntza.

Ekimen honek euskal lankidetzaren informazio sistemak hobetzeko, egindako jardueren inguruko informazioa bateratzeko, kontuak emateko, analisi eta ikerketak errazteko, erakundeen arteko koordinazioa sustatzeko eta ebaluazioaren kultura bultzatzeko balio du.

**Informazio gehiago hemen**